

ALEA

arabako aldizkaria



ENPLEGU ANEZKAK
LANA BILATZEA
ERE BADA LANA

"ALEAk nire euskara hobetzen laguntzen dit"

JITKA RASKOVA (GASTEIZ)
GASTEIZKO HARPIDEDUNA

Zergatik atsegin duzu ALEA etxean edukitzea? Oso irakurzalea naiz, eta ALEAk artikulu interesgarri asko dauzka. Batez ere, elkarrikketa nagusia gustatzen zait, Gasteizko pertsona ezberdinen berri ematen didalako: mendizaleak, biologoak, ekonomialariak... denetarik. Atsegin dut jendea zertan dabilen jakitea. Horrez gain, artikulu laburrak gustatzen zaizkit.

Euskarategian ari zara zure euskar-maila hobetzen. Lagungarria zaizu aldizkaria?

Magisteritza ikasi dut Gasteizen, eta C1 titulua behar dudanez, euskara hobetzen ahalegintzen ari naiz. ALEAk horretan lagundu egiten dit.

Non gorde ohi duzue ALEA?

Komuneko kutxa batean; han izaten ditugu laupabost aldizkari. Nire bikoteak bertan irakurtzen du! Nik, sofan eserita edo sukaldean.



Izan zaitez ALEAkide
www.alea.eus/aleakideak



ALEA 182

2019-02-15 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:
JUANMA GALLEG0

Bultzatzaileak



berria goiena“

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Miriam Biteri

Esti Lanao

Estibú Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7.bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

Asteko kolaboratzaileak: Irati Iciar, Itziar Rekalde, Igor Muñoz eta Zigor Etxebeste.

ALEAk ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Lau enplegu anezka martxan dira Araban.
- 8 **Protagonista.** Kike Fernandez de Pinedo.
- 12 **Iritzia.** 'Komentu fantasma', Irati Iciar.
- 13 **Iritzia.** 'Maitasun ereduak', Itziar Rekalde.
- 14 **Sarean.** #JudiciProcés.
- 15 **Iruditán.** Hasi dira inauteriak.
- 16 **Gizartea.** Kontzejuetan ere, berdintasunik ez.
- 17 **Gizartea.** Alde Zaharra, oinezkoentzat.
- 18 **Kultura.** Formatu txikiak, erantzun ozena.
- 19 **Gizartea.** Basoen kudeaketa egokia arriskuan dagoela salatu dute.
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Kultura.** Erdi Aroko barazki-jaleak.
- 24 **Kultura.** Hiru hartzek hartu dute ARTgia.
- 26 **Zinema.** 'Green Book'.
- 27 **Musika.** 'Beldurra'.
- 28 **Gure bazterrak.** Uzkie.
- 29 **Irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

*Araba da
erronka*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Lana aurkitzeko lan nekezean, baina zoriontsu


Lau enplegu anezka martxan ari dira une honetan Araban. Langabetuek osatutako taldeak dira, eta helburu nagusia guztientzako lana aurkitzea bada ere, emaitzak ez dira lan-arlorra mugatzen: bidean, lan egiteko modu berriak asmatu dituzte, eta, hara bertaratuta, agerikoa da giro onean egiten dutela hori.

Testua eta argazkiak:
Juanma Gallego

Ez da ohiko lana beraiena. Egia esanda, eta hitzez hitzeko esanahiari dagokionez, lanik ez dute. Baina hori lortzeko lanean ari dira. Eta, agerikoa denez, ondo pasatzen dute bidean. Enplegu anezketako ezaugarri bat lantalde espiritua lortzea bada, Gasteizko anezken kasuan ondo lortu dutela esan daiteke. Santa Maria la Real Fundazioak martxan jarri zituen lehen anezkak 2013an, Palencian eta Kantabrian. Ordudanik, 500 anezka baino gehiago daude martxan Estatu osoan. Gasteizko anezken kasuan, Gasteizko Udala eta Arabako Diputazioa dira babesleak, baina Europako Gizarte Funtza, Telefonica Fundazioa eta Lanbide ere daude tartean.

Hirurogei lagun inguru daude bi anezketan ALEA hara bertaratu denean. Horiez gain, herrialdean beste bi anezka ere badira, Laudion eta Agurainen. Ez dira lana aurkitzeko ikastaroak: lan-munduan txertatzeko eta berrikuntza sozialerako programak direla azaldu dute bertako arduradunek. Funtsean, hogeï lagun inguruko taldea da, zeregin komuna duena: "Guztionezko lana aurkitzea da helburua", laburbildu du anezkako parte-hartzaile Angela Lopezek.

Ez da teoria hutsa. Lan komun horri esker, lana aurkitu berri du Lopezek, baina ez du anezka utzi. Lan berria eta familia ardurak izan arren, taldean jarraitzen du. Eta ez da bakarra. "Gehienok denbora asko generaman beste lan batzuetan, eta, langabezian geratu ginenean, ez geunden ohituta lan-munduaren gaur egungo eskakizunetara". Lopezek nabarmendu du oso bestelakoa dela norbera bere kabuz lana bilatzea edo horixe bera taldean egitea. Ideia



horrekin bat dator Ana Serrano: "Langabezian geratu ostean etxean geratzen bazara, gaztelu baten antzeko zerbeit eraikitzen duzu, hortik atera ezinik. Baina, anezkan egonda, jende askorekin harremanetan egoteko aukera duzu, eta egoera normalizatu egiten duzu, konturatzen zarela ez zaudela bakarrik honetan".

Barneko lanpostuak

Lana aurkitzeko lan horretan, astean hirutan biltzen dira, eguneko bost orduz. Anezkako teknikari Mikel Garciak azaldu du nola egiten duten hori. "Komunikazioa lantzeaz gain, enplegarritasun mapa bat osatzen dugu, parte-hartzaileen interesekin bat joan daitezkeen inguruko enpresen analisia eginez. Mapa hori eskuetan, enpresekin kontaktuan jartzen gara, bilerak eta elkarriketak adosteko". Kontaktu hori ezinbestekoa da, lan-munduan badirelako aukera asko eskaintza publiko izatera iristen ez direnak: enpresaren barruan bertan edo kontaktuen bitartez betetzen dira lanpostu horiek.

Ez da ardura bakarra. Curriculum gaurkotzea, marka pertsonala lantzea, elkarriketak ondo egiten ikastea, jendearen aurrean hitz egiten ikastea... horiek guztiak ezinbesteko tresnak dira, baina emozioen kudeaketa ere ez dute alboan uzten. "Langabeziaren enpatia lantzen dugu ere, langabetuek ikus dezaten honetan bakarrik ez daudela", azaldu du Garciak. Horrez gain, eta arlo materialera bueltatuta, parte-hartzaileen profila biltzen duen triptikoa ere osatzen dute, (online ere eskuragarri daude, noski, labur.eus/anezka1 eta labur.eus/anezka2 helbideetan).

Enplegarritasun mapa osatzea da anezken zereginetako bat, norberaren interesen arabera enpresak aurkitzeko eta horiekin kontaktuan jartzeko.

**"LANGABEZIAREN
ENPATIA ERE LANTZEN
DUGU, LANGABETUEK
IKUS DEZATEN EZ
DAUDELA BAKARRIK"**

MIKEL GARCIA, ANEZKAKO TEKNIKARIA



DATUEK METODOLOGIA BABESTEN DUTE: PARTE-HARTZAILEEN %60 INGURUK LORTZEN DUTE LANA ANEZKETAN

dute. Ondoren, beraiek ere lana bilatu beharko dute.

Datuen babesa

Behin teoria ikusita, agerikoa da galdera: anezken metodologiak funtzionatzen al du? Datuek baietz diote. Santa Maria la Real Fundazioak esku-artean dituen zenbakien arabera, parte-hartzaileen %60 inguruk lortzen dute lana. Ideia hori berretsi du Garciak. "Ezin izango dugu inoiz %100era iritsi, noski. Bestalde, arras agerikoa da nolakoa den lan merkatua, eta askotan kalitate aldetik gabezia ugari daude ere. Baina nik ez dut ezagutzen anezken lan-txertatze kopuru berdina duen beste egitasmorik. Batzuetan, gainera, lan egonkorak dira, eta parte-hartzaileen helburu profesionalekin bat datoz".

Lan horietako asko behin-behinekoak izanda ere, jomugan dagoen helburura iristeko urratsak egiten direla nabarmendu du Garciak. "Egunero ikusten dugu parte-hartzaileak nola aldatzen

Orain fase horretan badaude ere, aurreneko zeregina talde espiritua osatzea izan da. Azaroan hasi ziren horrekin. Bigarren anezkaren ardura duen Ana Belen Sanchez teknikariak dio talde osoaren ekarpena jaso dutela. "Norberak hoberen ezagutzen duen arloan laguntzen du. Adibidez, gaitasun digitaletan gehiegi trebatuta ez daudenek arlo horiek ondo menderatzen dutenen laguntza jasotzen dute". Behin hasierako bultzada hartuta, gainera, taldea bere kabuz doala gaineratu du Garciak. "Gaur goizean bertan, bilera batera atera naiz, eta itzuli naizenean ikusi dut parte-hartzaile pare bat lan-elkarrizketa baten simulazioa egiten ari zirela. Horrek laburbiltzen du atzean dagoen filosofia: batak besteari elkarri laguntzen diote. Iritsi da une bat, gainera, non guztiz autonomoak diren".

Ez da harritzekoa teknikariak parte-hartzaileekiko enpatia berezia garatzea, beraiek ere lan bila ari direlako. "Ez gara funtzionarioak, eta asko identifikatzen gara beraiekin", azaldu du Sanchezek. Izan ere, bi teknikariak ere aurreko anezketako parte-hartzaile izan dira, eta zazpi hilabeteko kontratua

diren: ez dira sartu zireneko berdinak, konpetentzia eta ezagutza gehiago eskuratu dituztelako". Zaila da, gainera, epe luzera begira pertsona bakoitzean sortzen den eragina baloratzea, baina hori ere azpimarratzekoa dela uste dute bi teknikariek. "Batzuetan ez dute lana aurkitzen anezkak dirauen bitartean, baina bai handik denbora batera", dio Garciak. Bestalde, gainerako zerbitzuak ere beharrezkoak direlakoan dago teknikaria. "Gu ez gara Lanbide, CETIC edo antzeko beste zerbitzuekin lehiatzen; horiek ere beharrezkoak dira; osagarriak. Koordinazioa da gakoa".

Zifretatik harago

Anabela Runa Batista parte-hartzaileak argi dauka bide profesionala zoriontsua izanda egin daitekeela. Galdera luzatu dio talde osoari. "Ongi barneratuta duzue hori, ezta?". Baaaaii ozen batekin erantzun du taldeak, barrezka. "Tira, ni tematuta nago horrekin. Lan egin dudan enpresetan zoriontsu izaten saiatu naiz, eta jarrera hori kutsa daitekeela iruditzen zait". Duela hamaika urte iritsi zen Runa Batista Lisboatik. Gasteizko enpresa baten ordezkari izan lan egiten zuen bertan, eta Gasteizera formakuntza bat jasotzera etorri zenean hiriaz maitemindu zela azaldu du; hemen geratzea erabaki zuen.

Giroa ikusita, argi dago ideia hori ondo barneratu dutela anezkan. Besteak beste, Mikel Collekan lanean zoriontsu izateko ideia hori berretsi du. "Ez al da produktiboa lanean irribarrez ari den lagun bat, ala?". Bestetik, anezka etorkizun tresnatzat ikusten du. "Hemen inork ez dizu lan bat emango, baina zure kabuz lana bilatzeko tresnak aurkituko dituzu". Enpresa baten moduan aritzen direla azaldu du. Horrez gain, lan bila ari direnentzat aproposak ez ezik, anezkan landutakoak enpresa guztietan txertatzeko moduko baloreak direlakoan dago Coll. "Entzuten jakin, besteen ideiak hartu eta horien inguruan hausnartu eta ideia komun batera iritsi. Izpiritu hau edozein enpresara eramateko modukoa da, ez da soilik lan bila ari garenon kontua".

Gehienek enpresa batean lana bilatzen badute ere, autoenpleguaren bidea jorratzen dutenak ere badira. Horretan dago, hain zuzen, Arturo Martinez bidaiaria. Munduan zehar hainbat bidaia egin ondoren (besteak beste, Islandian hildako euskal balea arrantzaleen atzetik ibilitakoa da), Martinezek bere pasioa lanbide bilakatu nahi du orain. "Argi daukat horretara bideratu nahi dudala nire jardun profesionala; tartean, bisita gidatuak egitera". Lana aurkitu ezean, anezkakoei diote agian Martinezekin batera joango direla, formatu berria inaurratuz: anezka mugikorra: "Kurroa aurkitu ez duten hoxei langabetuk bizikleta hartu dute, eta munduan zehar bidaia-tzera joan dira. Tira, ez esan albiste salgarria ez denik".

"LAN EGIN DUDAN ENPRESETAN ZORIONTSUA IZATEN SAIATU NAIZ; JARRERA HORI KUTSA DAITEKE"

ANABELA RUNA, PARTE-HARTZAILEA

"HEMEN INORK EZ DIZU LAN BAT EMANGO, BAINA ZURE KABUZ LAURKITEKO TRESNAK JASOKO DITUZU"

MIKEL COLL, PARTE-HARTZAILEA



Arabako Bertsozale Txapelketa 2019

2.FINAL LAURDENA

OTSAILAK 16
Larunbata 17:30
ZIGOITIA,
Gizarte Etxeko aretoa



Oihane Perea
Perez de Mendiolak



Sorapie Lopez
Ortueta



Unai Bengoetxea
Mujika



Altor Ugarte
Eziz



Ara Arribas
Barredo



Irati Ande
Villanueva



Gazteak



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea



Gizarte Etxea

www.bertsozale.eus

"Ekarpen inportanteak egin ditugu, baina ez dugu norabidea aldatu"

KIKE FERNANDEZ DE PINEDO EH BILDUKO AHALDUN NAGUSIGAIA

Batzar Nagusietan igaro den legegintzaldiaren balorazio gazi-gozoa egin du Kike Fernandez de Pinedok; ereduaren arteko talka agerian geratu dela uste du ahaldu nagusigaiak, eta lurraldean aldaketa gauzatzeko "ausardia falta" egotzi dio EAJri. Testua: **Estitxu U. Lopez de Arkaute** Argazkiak: **Esti Lanao**

Martxoaren 31n itxiko dute legegintzaldia Arabako Batzar Nagusietan, eta despedidarekin batera abiatuko du EH Bilduren ahaldu nagusigai Kike Fernandez de Pinedok (Gasteiz, 1961) hauteskunde kanpaina. Ate bat ixten eta bestea zabaltzen den denbora tarte hori aukera egokia da egindakoaren balantzea egiteko eta aurrera begiratzeko, eta hori egin du hain zuzen Fernandez de Pinedok ALEAren eskutik. PPK ezarritako politikak aldatzeko "ekarpen garrantzitsuak" egin badituzte ere, norabide aldaketa sakontzea falta izan dela aitortu du ahaldu nagusigaiak: "Momentua iritsi zenean, politikak sakondu behar zirenean, EAJk atzera egin zuen, eta harrezkero aldaketa gutxi ikusi dira".

Ramiro Gonzalezen kargu-hartzea erraztu zuen **EH Bilduk**, eta bi aldiz aurrera atera zituen aurrekontuak. **Azkeneko biak, ordea, ez ditu babestu. Zer aldatu da?** PPren gobernu batetik gentozen, eta gutxiengoan zegoen foru gobernu bat etorri zen. Lurraldeak merezi zuen norabide aldaketaren alde, eta, aldeztatik baldintza batzuk jarrita, lehen bi urteetako aurrekontuei bidea eman genien. Ekimen asko abiatu genituen aurrekontu horietan, baina akordio orokor bat etorri zen

EAJren eta PPren artean. Arabatik kanpo erabaki zuten, eta inposatu zuten PP izan behar zela gobernuko bazkidea; horrek fiskalitatean atzera egitea ekarri zuen, eta gainera, hortik aurrera, betiko politiketara itzuli ziren. Ez dugu aukerarik izan fiskalitatearen inguruan edo toki erakundearen finantzazioari buruz eztabaidatzeko.

Negoizatzeko gaitasun eta malgutasun nahikoa izan al ditu EH Bilduk?

Jakinda gaia konplexua zela, ahaldu nagusiari esan genion: "Baduzu urte bat eztabaida zabaltzeko eta mahai gainean jartzeko fiskalitatearen eta tokiko administrazioen finantziarioari buruzko aukera guztiak". Eta ez zen eman eztabaida hori. Bat-batean PPren akordio orokorra zutela ikusi genuen. Hori izan zen EAJren hautua; EBBk hartu zuen erabakia, Arabatik kanpo.

Arabako instituzio nagusietan, EAJren eta EH Bilduren artean atzematen edo irudikatzen zen "sintonia" edo "konfiantza giroa" hautsi egin da?

Giro hori bazegoen, baina uste dut ausardia falta izan duela EAJk. Behin hasten zarenean aldaketak egiten, nabarmenak izan behar dira arlo guztietan, nekazaritzan, ingurumenean, enpleguan... Eta momentu klabe horretan, sakondu behar zenean, EAJk atzera egin zuen eta harrezkero aldaketa gutxi ikusi dira.



Gasteizko Udalean Gorka Urtearainekin gertatutakoak eragina izan al du Arabako Diputazioan?

Hasieratik argi utzi nahi izan genuen bi erakunde autonomoan direla; eta erabakiak modu autonomoan hartu dira, eta gainera, modu desberdinetan jokatu da. Ez dut uste paralelismo handiegia egon denik. Hemen, gutxienez, lehen bi urteetan egin ziren akordioak bete egin ziren eta Gasteizko Udalean, berriz, ez da hori gertatu. Egia da, baita ere, PPrekin akordioak egiteko hautua berdina izan dela.

Perspektibarekin hartuta, zeintzuk dira EH Bilduk egin dituen ekarpenik handienak?

Agendan jarri dugu lurralde oreka. Joera handiegia dago dena Gasteizen zentralizatzeko, eta lurralde orekan pausuak ematea lortu dugu. Despopulazioari buruzko eztabaida zabaldu dugu, eta horrekin batera hainbat neurri sustatu ditugu tokiko garapen sozioekonomiko endogenoa bultzatzeko, zerbitzuak hobetzeko, alokairuko etxebizitza herrietan egiteko, proiektu komunitarioak lantzeko; eta oso lotuta dagoen lehen sektorean alternatibak eta eredu aldaketa bultzatu ditugu. Beste arlo batzuetan ere ekarpenak egin ditugu: egonkortu genituen kuadrilletako teknikarien lanpostuak, eta %0,5a igo genuen tokiko erakundearen finantzaketa. Zerbitzu sozialen arloan, akordioa lortu zen San

Prudentzio egoitzan 60 plaza publiko sortzeko, nahiz eta gero ez gauzatu.

Zertan huts egin duzue?

Batez ere lehenengo bi urteetan, hainbatetan lokaztu egin gara; eta lokazten zarenean akatsak egiten dituzu. Arlo batzuetan ez dugu lortu oso inportanteak ziren proiektuak gauzatzea. Lehen aipatu dizut adibiderik onena, San Prudentzio adinekoen egoitza. Bada, ez dugu plaza bakar bat ere lortu. Aldiz, proiektu xumeak izan direnean, EAJren politikak kolokan jartzen ez dituztenak, horiek aurrera atera dira; baina fiskalitatearen aldaketa, toki finantziarioa, edo zerbitzu sozialetan... Hor ari zara eredua ukitzen.

Nekazaritzan ere gauza interesgarri asko martxan jarri dira, esate baterako, Lautadako transformazio gunea, baina ez dugu lortu norabidea aldatzea, betiko inertiak ez ditugu aldatu. Hasieran, norabide aldaketa lortu genuen, baina ez dugu lortu sakontzea.

Arabatran ere EH Bilduren proposamen nagusietako bat izan da. Egingarria ikusten duzu aurrera begira?

Proiektu batzuek laburbiltzen dute atzean zer politika dagoen. Bi eredu ditugu hemen. Guk tren sozial bat sustatzen dugu, lurraldea kohesionatzen duelako, eta pertsonen zerbitzura dagoelako. Honekin batera, ezinbestekoa den treneko korridoreen modernizazioa egitea nahi



Kike Fernandez de Pinedo EH Bilduko ahalduen nagusigaiak legegintzaldi honetan taldeak egindako lanaren errepasoa egin du.

dugu eta hirugarren hari bat merkantzientzat eta nazioarteko trafikorako. Hori da gure eredia, malgua. Horren aurrean, XX. mendeko politikak egiten dabil EAJ; azpiegiturak inposatzen ditu, eta bai ala bai egin behar dira, azaldu gabe zer bideragarritasun sozial eta ekonomiko duten. Hor talka dugu, ereduaren talka. Arabatranekin lortu genuen txostena egitea, oso ondo, oso polita, baina kaxoi batean geratu da.

Fiskalitatea aipatu duzu lehen. Hor ere oso urrun geratu da foru gobernua EH Bilduren proposamenetik?

"XX. MENDEKO POLITIKAK EGITEN DABIL EAJ; AZPIEGITURAK INPOSATZEN DITU"

"LEHENENGO BI URTEETAN BATZUETAN LOKAZTU EGIN GARA, ETA ORDUAN AKATSAK EGIN DITUGU"

Nabarmena da EAJren aldetik aldaketa bat eman dela. Are gehiago, esango nuke Iberdrola eta Petronor bezalako enpresa handiek markatu diotela EAJri bidea, sozietate zergaren inguruan edo ondasun handien zergan. Zor handia du oraindik lurraldeak eta beharrak gero eta handiagoak dira, batik bat zerbitzu sozialetan, gizartearen zahartzeagatik. Hortaz, finantzazioa handitu behar da, modu justuan. Uste genuen erdibide bat adostea posible zela, EH Bilduren eta EAJren eta PSEren arteko proposamenen arteko erdibide bat, baina eztabaidatzera ere ez gara iritsi. Eskema atzerakoi bat inposatu da, eta ezin izan dugu aurrera egin.

Foru Ogasunaren diru sarrerak handitu egin dira; hori ona da.

Hobekuntza egon da ekonomiaren lerro batzuetan, baina nazioarteko testuinguruak bultzatuta izan da, ez da soilik Arabako kontua. Enpleguan gauza batzuk egin dira, baina sortzen den enplegua gero eta kaskarragoa da, eta gainera gero eta behin behinekoagoa. Langile pobreak sortzen ari gara. Industrian eta jarduera sozioekonomikoan, EAJren filosofia da merkatuak

arautzen duela jarduera ekonomikoa. Gure ustetan, aldiz, eskualde mailako planak eta tokiko garapenarekin lotutako dinamikak sustatu behar dira, enpresa txikien arteko kolaborazioak eta elkar ezagutza, eta horietan berrikuntza indartu. Enpresa handi asko 5.0an ari dira lanean, eta beste txiki asko oraindik ez dira 2.0ra iritsi.

Uraren kudeaketaren harira eta partzuergo berriaren osaketa dela eta, uste duzu auzian jartzen ari direla kontzejuen eskumenak eta gaitasunak?

Dударик gabe. Gobernantza ona ez da zentralizazioaren sinonimoa, hurbiltasunetik etorri behar da, eta kontzejuak ahalmena erakutsi dute horretarako. Inposatu nahi izan da eredu bat, xantaiaren bitartez eta gardentasun gutxiarekin.

Arabako ura negozio iturri bilakatzeko arriskua dago?

Problema da kontrolak zure eskuetatik ihes egiten duenean, ez dakizula zer gertatuko den. Esaten zaigu erakunde publikoa izango dela, baina arriskua hor dago. Horregatik kontrol publikoa toki erakundeek izatea inportantea da, haiek dutelako eskumena.

Baina badira ura ondo kudeatzen ez duten kontzejuak.

Zailtasun nabarmenak dituztenen artean ondo legoke agian partzuergo bat sortzea, eta Diputazioak denak lagundu behar ditu, planifikazio iraunkor batekin eta aholkularitzarekin.

Legegintzaldiaren hasieran esan zenuen ezinbestekoa zela kulturen emandako murrizketak iraultzea. Zer urrats egin dira arlo horretan?

Ez da aurreratu nahi genuen guztia, baina murrizketa nabarmenak eman ziren PPrekin, eta buelta eman zaie neurri batean. Ondarearekin pausuak eman dira, gure ekimenei esker, eta kultura eragileekin mahaia osatu da. Orain ikusi behar da ea nola osatzen diren gauza horiek guztiak.

Eta euskararen alorrean, gehiago egin daiteke?

Murrizketatik gentozen etu lau gauza lortu ditugu: euskara ikasteko diru-laguntzak zabaltzea, euskara teknikarien sarea egonkortzea,

euskarazko komunikabideen diru-laguntzak eta euskararen sustapenerako programa bat. Orain, Arabako gizartea euskara berreskuratzen eta sustatzen egiten ari den esfortzuaren parekoa egin behar du Diputazioak. Handitu egin behar dira partida guztiak Arabako gizartearen ahalegina bermatzeko.

Hemendik lauzpabost hilabetera EH Bildu EAJren foru gobernu bat babesten ikusten duzu?

Momentu honetan, ikusten ari gara Araban oso harrera ona izaten ari garela, eta gure jomuga lehen indarra izatea da. Beraz, gustatuko litzaidake Ramiro Gonzalezi galdetzea ea guk lehen indarra izanda babestuko gintuen, uste baitut hori ere gerta daitekeela. ■■■■

Miren Larrionen kanpaina zabalduko dute larunbatean

EH Bilduk ekitaldia egingo du otsailaren 16an, Gasteizko Artiumen. Miren Larrión alkategaiaren hauteskunde kanpainari "lehen bultzada bat" eman nahi dio ekitaldiak. Koalizioaren asmoa ehunka kide batzea da, maiatzean egingo diren hauteskundeetara begirako programaren lehentasunak eztabaidatzeko eta elkarrekin lantzeko. Enplegua, etxebizitza, mugikortasuna eta berdintasuna jarriko ditu ardatz gisa EH Bilduk bere proposamenean, "pertsonek guztientzako egokia izango den hiria eraikitze bidean". Ekitaldiaren bigarren partean Larriónek berak hartuko du hitza. EH Bilduk bozetarako ezarri duen helburua leloan bildu dute: *Gobernatzeko prest*. Duela lau urte bigarren indarra izatea lortu zuen koalizioak. Orduko emaitzak gaitzitzen eta Arabako hiriburuan koalizioaren babesa handitzeko baldintzak sortzea da Larriónen aurten bere buruari jarritako erronka.



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

Komentu fantasma



IRATI ICIAR

UEU-KO LANGILEA

XII. mendean Gasteiz/Vitoriarentzat giltzarri izan zen komentu hura. Frantziskotarren *mapamundian* kokatu zuen hiria, horrek dakarren ospearekin. Tokiko jauntxoek emazte boteretsuak bertan ehortzi ziren, beraien arimaren salbaziorako hilobiak elizaren burualdean jartzeko ederki ordaindu ondoren. Errege poeta entzutetsu baten kantigetan azaltzeraino bezain ospetsua. Ondoko mendeetan hazten jarraitu zuen, eliza barroko monumentalak, bi klaustro, ospitalea eta gazteentzat eskola eskusiboa izateraino.

Baina XX. mendera iritsi orduko –pelikula historiko-epiko bat egiteko bezainbesteko gertaera bizi ostean– oso bestelakoa zen komentuaren egoera: monjeak joan eta etorri, tartean militarrek sartu eta, bitartean, ondarea galtzen eta saltzen joan ziren. Ordurako hiriak bizkarra emana zion komentuari eta bere orube osoari. Hazten zebilen hiria zen eta traba egiten zion. Handiegia zen eta erdigunean zegoen. Bota egin behar zen, bai ala bai. Babestu eta erabilera ezberdinak emateko bihotz oneko proposamenak proposatu baziren ere, komentua sententziatua zegoen. Desmartxa ilunak eta ezkutuak egin omen ziren babestutako eraikina botatzea lortzeko. Madrilerak ere iritsi zen arazoa. Hainbesterakoa izan zen kalapita, udal korporazio osoak dimititzeko mehatxua egin zuela. Esan eta egin. Agur komentua, agur eraikin atxikiak, agur klaustroa, agur nobizioen eskola eta agur elizari ere.

Komentua eraitsi zutenetik 85 urte ere ez dira igaro eta bere memoria ia galdu dugu gasteiztarrok, baina ez guztiz. XXI. mendera mamu baten zurrumurruak ekarri digu komentuaren oroitzapena. Noizbehinka, mutiko baten irudia ikusten dela Olagibel kaleko Hacienda-ren eraikinaren pasillo luzeetan? A, bai, *Andresito* da, bertan zegoen San Frantziskoren komentuko eliz-mutila omen zen. Hor datorkigu komentuaren izena gogora. Fantasmaren komentuarena. Komentu fantasmarena. ■■■

**ERAITSI ZUTENETIK 85
URTE BETE ERE EZ
DIRA IGARO ETA BERE
MEMORIA IA GALDU
DUGU GASTEIZTARROK**

Maitasun ereduak



ITZIAR REKALDE
IPUIN KONTALARIA

Bihotz tankera duten imajina daitezkeen gauzen artean San Valentin datorrela gogoratu dut. Salerosketen jai paregabea; otsailaren 13tik 15era Erroman ospatzen ziren Lupercalietan omen du oinarria maitasunari eskainitako jaiak. Egun horietan, ahuntz larruaz eginiko zartailuz jotzen zieten mutil biluziek neskatilei bizkarrean, ugalkortasuna eragiteko eta udaberriari ongi-etorria emateko. Hara ba, nondik datorren hain erromantikoa deritzogun jaia. Holako egurra halako ezpala, eta guk oraindik ondorioak ezin konpondu gabiltza. Eliza katolikoa ez omen zegoen erosoegi hain arrakastatsuak ziren ospakizun haiekin, eta Valentin apaizarena asmatu zuten. Claudio II. enperadoreak gazteen arteko ezkontzak debekatu zituen gerrara zihoazen soldaduek indarra eta kemena galdu ez zezaten. Valentinek aurre egin zion enperadoreari, eta ezkutuan ezkontzen zituen bikote ausartak. Lepoa moztu zioten. Normal. Aitzakia eratzunak edo bonboiak oparitzeko eta familiaren eredua indartzeko.

Benidormen hirurogei urtetik gorako gizon bat agertu da telebistako kameraren aurrean dantzarako duen zaletasuna azaltzen. Azken hoge urteetan joan dira emaztea eta biak leku berdinerara oporretan, eta, gauero, hoteleko dantzalekura. Emaztea alzheimerrez jota dago aspalditik, ia ez du inor ezagutzen, senarra ere ez sarritan. Iluntasunean igarotzen du denbora bukaezina baina Benidormeko gauetan dena aldatzen da. Gizonak ondo prestatu duen soinekoa hartu eta jantzi dio. Gero zapatak. Laztan bi eta musu bat. Leunki orraztu du andrearen melena zuria. Belarrira biok dakiten kanta bat abestu dio. Beste musu bat. Leunki zutitu eta eskutik eta gerritik helduta gelatik atera da bikotea. Dantzalekuan sartu dira tango bat entzuten den momentuan eta dantzan hasi dira. Andreak panpin bat ematen du, baina senarrari itsatsita hegan egin du eta berpiztuta ez ezik, emakumerik ederrena eta argitsuena dirudi. Dantzari guztiek albo batera egin dute eta pistan bikotea bakarrik dabil maitasuna zer den erakusten. "Bai, emazteak laguntzen nauen bitartean, beti etorriko gara hona", dio gizonak kamera aurrean.

Aukera ezazue nahi duzuen eredua. ■■■

**DANTZARI GUZTIEK
ALBO BATERA EGIN
DUTE, ETA PISTAN
BIKOTEA BAKARRIK
GERATU DA**

SAREAN

@ANAMENABAR

#JudiciProcés

Erreferenduma antolatu eta Kataluniako independentzia aldarrikatzeagatik, hamabi buruzagi independentista auzipetuen aulkian eseri ditu aste honetan Espainiako Auzitegi Gorenak, hiru hilabete iraungo duen epaiketan; 25 urte arteko espetxe zigorra eskatu dute haientzat. Auzipetuei elkartasuna adierazteko milaka lagunek egin dute bat Euskal Herrian antolatutako mobilizazioekin. ■



ION ANSA
@ionansa

Bi epaiketa. Espainiak askatasunari; herritarrek Estatuari. Ea zeinena den kondena handiena.



ENEKOITZ ESNAOLA
@EnekoitzEsnaola

Berrir, 2006ko estatutu berriaren ondoren bezala, berak nahi duen tokian dauka Espainiako Estatuak Kataluniako gatazka: auzitegietan.



IKOITZ ARRESE
@ik0itz

Ez da dozena bat katalanen kontrako epaiketa; demokraziaren kontrako epaiketa da! #JudiciAlaDemocràcia



ENEKO FERNANDEZ
@enekogara

Espainian ez dago epaiketa polituko justurik ezta inpartzialik ere. Epaiketa bera astakeria demokratikoa eta eskandalu juridikoa da.



IDURRE ESKISABEL
@idurreски

Ze geruza abisaletan daude ezkutatuta "biolentziarik gabe dena da posible" gaztigatzen zutenak? #ViscaCatalunyaLiure #LlibertatPresosPolitics



Parral
taberna

menu begetarianoa eta gosariak
asteazkenean zehar - asteburuetan razioak
asteazkenean aktibazio kulturalak

PARRALTABERNA@GMAIL.COM

SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4

TLF 945276833 GASTEIZ-ARABAKI

 IRUDITAN



Hasi dira gurean ere inauteriak

Kuartangoko bizilagunek zabaldu zuten pasa den larunbatean inauterien denboraldia Araban. Agate Deuna ospatzen duten egun berean egin zuten jaia; goizez, hartza, porreroak eta zakuekin jantzitako maskaratuak Gillartetik Santa Eulaliara joan ziren makilekin, etxez-etxe, jakiak eta dirua biltzen. Arratsaldean, Zuhatsu-Kuartangon, errautsa botatzen duen pertsona eta Arrianoko atsoa izan ziren herriko kaleetatik zehar. Herri inauteriak eta bestelako mozerro jaiak nahastuko dira datozen asteotan.

Argazkia: Julen Ortiz de Zarate Amirola. ■■■



Beste urte batez, inauterietako argazki lehiaketa antolatu du ALEAk. Bidali zure argazkiak *Alea.eus* atarian azaltzen den galdetegiaren bitartez.



Kontzejuen berri ematen duen ikerketa aurkeztu du Emakunde. EMAKUNDE

Kontzejuetan ere, berdintasunik ez

Arabako kontzejuetan emakumeen parte-hartze politikoa nolakoa den aztertu dute Mentxu Ramilok, Eva Martinezek eta Miriam Ociok; genero arrakala handia dagoela berretsi dute.

ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

GASTEIZ

Arabako kontzejuetan eta administrazio batzarretan emakumeen presentzia paritarioa eta orekatua izatetik urrun dago. Izan ere, 2017ko hauteskundeetan, hautagai guztien artean, %24,6 soilik izan ziren emakumeak, eta emakume bat ere ez zuten aukeratu kontzejuen %45,5ek.

Kuadrillaren arabera, emakumeen presentzia ere oso desberdina da: Aiaraldean emakumeak daude kontzejuen %75ean, Lautadan kontzejuen %62,5ean, Gasteizen %59an eta Gorbeialdean

%54,7an. Beste muturrean daude Arabako Errioxan (%25), Añanan (%43) eta Mendialdean (%46,2).

Emakunde aurkeztu berri duen lanaren emaitza dira datuok. *Emakumeon parte-hartzea Arabako kontzejuetan. Beraien presentzia, arrazoi eta estrategietara hurbilketa* batizenburuko ikerketa Emakunde urtero, genero eta berdintasuna gaiak lantzen dituzten lanei ematen dizkien hiru beketako baten emaitza da. Egileak Mentxu Ramilo Araujo –ikerketaren koordinatzailea–, Eva Martinez Hernandez eta Miriam Ocio Saenz de Buruaga izan dira.

%45,5

Emakumerik ez

2017ko hauteskundeetan aukeratu ziren 1.040 karguetatik, emakumeek soilik 256 okupatu zituzten (67 lehendakari eta 189 bozeramaile). Gainera, kontzejuen %45,5ean ez dago emakumeen presentziarik.

Ikerketa honen helburua emakumeen parte-hartze politikoa zer baldintzetan ematen den ikustea eta ikertzea izan da. Ikertzai-leek berretsi dute genero arrakala handia dagoela, eta segun eta nolakoa den erakundea parte-hartzea aldatzen dela. Hala, es- truktura irekiagoak eta horizon- talagoak dituzten herrietako giza erakundeetan emakumeen parte- hartzea handiagoa da; eta txikia- goa da, aldiz, kontzejuetan eta administrazio batzarretan, egitu- ra itxiagoak eta tradizionalagoak dituztelako.

Kostu gehiago

Orokorrean, kontzejuetan parte hartzen duten emakumeek balo- razio positiboa egiten dute; hale- re, ohiko jarduera politikoa genero ezberdintasunak nabari- tzen dituzte; eta espazio publikoa okupatzen dutenean, gizonetakoek baino kostu handiagoa ordaindu behar dutela uste dute.

Ikerketaren arabera, emakumeen presentziak kontzejuen agenda eta lehentasunak aldatzen lagun- du du eta aldaketak ekarri ditu ohiko funtzionamenduan eta egi- tura itxiak zabaltzen lagundu du.



Merkatari eta ostalaritzarako zamatanetarako ordutegia ere murriztuko litzateke. ALEA

Alde zaharra, oinezkoentzat

Gasteizko auzoko eragile ezberdinek proposamen landua aurkeztu dute; kotxeen erabilera mugatzeko askotariko neurriak jasotzen ditu txostenak eta horiek kontuak har ditzala eskatzen diote Udalari.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Auzokideen aspaldiko kezka da Gasteizko alde zaharreko trafikoak eragiten duen arriskua, eta, konponbide bat bilatu nahirik, eragile ezberdinen bileretatik eratorritako proposamen landua aurkeztu dute. Auzoa oinezkoen espazio bezala lehenetsi dezatela aldarrikatu dute horretan; bereziki, alde zaharreko muinoari

dagokionean. Bertan kokatzen diren esparru publiko guztiak – eskola, gizarte etxea edota parkeak – kotxez inguraturik daudela azpimarratu eta auzokideentzat arrisku bat suposatzen duela salatu dute.

Oinezkoen mesedetan, trafikoa murriztu eta auzotik dabiltzan kotxeen erabilera mugatzeko neurriak hartu daitezela eskatu nahi

diote Udalari datozen asteotan. Horrenbestez, oinezko eta ibilgailuen beharrak uztartuko dituen arautegi bat proposatuko dute.

Alde Zaharreko hainbat eragilek aurkeztutako txostenaren arabera, oinezko esparru bihurtzeko, auzoko bizilagunek bakarrik izango lukete kotxearekin auzoan sartzeko aukera, eta horretarako, auzoko sarreretan kotxeen sarrera kontrolatzeko mutiloiak jarri beharko lirateke. Gainera, auzo guztian, gehienez, 20 kilometro orduko abiadura muga dagoela gogorarazteko seinaleak ezartzea eskatu dute, proposatutako neurrien artean.

Merkatari eta ostalariekin adostutakoa oinarri hartuta, zamatanetarako ordutegia 07:00etatik 12:00etara murriztea litzateke beste oinarrizko arau bat, eta auzokideek zamatanak egiteko ordutegia 13:00ak arte luzatuko litzateke.

Aparkalekuaren arazoa

Oinezkoen esparru bihurtzeak aparkaleku galera dakarrela onartuz, gai horri ere konponbide bat bilatu nahi izan diote auzoko eragileek. Zentzu horretan, gaur egun espazio gehien eskaintzen duen Etxauriko aparkalekua epe luzera desagertzearen alde azaldu dira. Aisialdirako espazio bihurtuko litzateke eta, bien bitartean, sarrera bakarra San Bizente aldatik bideratu beharko litzateke.

Gainontzeko kaleetan dauden aparkaleku bakanak ezabatu eta toki horietan auzokideentzat 15 minutuko espazioak jartzearen alde agertu dira, edota mugikortasun arazoak dituztenei zuzendutakoak. Auzoko bizilagunentzat, berriz, ingurunean dauden aparkalekuetan tokia bilatzea alternatiba proposa izan daitekeela uste dute.

Formatu txikiak, erantzun ozena

Kontzertuak murrizteko dekretuak erantzuna izan du Arteak Ireki plataformarekin; formatu txikiko espazioetako eskaintza "babestu eta indartzeko" eskatu dute kultur arloko eragileek.

E.LANAO/ A. AMENABAR GASTEIZ

Joan den urtean kezka agertu zuten Gasteizko ostalari eta artistek Udala prestatzen ari zen araudia- rekin: hilean bi kontzertu antolatze- ko baimena. Kezka hori area- gotu du, ordea, Eusko Jaurlaritzak berriki onartu duen jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueren arau- diak. Horren arabera, aurreran- tzean, urtean hamabi ikuskizun antolatu ahal izango dituzte, gehienez. Erabakia kultura eta komertzio txikien kontrako "era- sotzat" jo dute hainbat taldek, eta Arteak Ireki plataforma aurkeztu dute aste honetan Gasteizen.

"Ezin da inolaz ere ulertu. Ez dator bat gure herriaren behar-ekin, ez dator bat arteak eta kultu- rak dituen beharrekin; ezin dugu onartu auzokide moduan, kultur- gile moduan, ostalari moduan...", esan du Iñaki Landa Gasteizko Orbain kultur elkarteko kideak ALEA FM saioan eginiko elkarriz- ketan. Joan den urtean Gasteizko kezka zena, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoara zabaldu dela azaldu du Landak, eta hainbat zalantza eragin dituela. Izan ere, murriz- keta honek ikuskizun eta ekintza erre kreatiboei eragiten die, bes- terik zehaztu gabe. "Baina zer da

ikuskizuna? Bakarlari bat? Antzez- lan bat? Erakusketa bat?", galde- tu du Landak. Araudi hau komer- tzio txikien eta hastapenetan dauden taldeen kontrako eraso- a dela uste du. "Hankasartze itzela da, ez diote gaiari heldu daukan garrantziarekin; tabernek balio erantsi bat eskaintzen dute iku- skizun hauekin, kultura erakuste- ko modu bat da".

Ordutegien erregulazio eta au- zokoekin kontziliazioa garrantzi- tsuak dira, Landaren arabera, baina gaur egungo ordutegiak hori bermatzen duela uste du: "Egun dagoen legedia nahiko malgua da, soinuari dagokionez ez dago ara- zorik; ez dago benetako arazo bat auzokideen partetik".

Kulturgileen babesa

Arteak Ireki plataforma ostegunean aurkeztu dute Gasteizen, kultur arloko hainbat lagunen babesa- rekin. "Ezingo genuke jaialdi han- dien progresioa ulertu eszena lokala babestu gabe, zeinak ber- matuko duen formatu txikiko espazioetan hasten den zirkuitu jarraitu bat", adierazi dute ohar batean. "Gehiegikeria honen au- rrean, dei egin nahi diogu EAEko kultur arloari beraien ahotsa gora dezaten".

Dekretuak udaletxeetako kultur arloko plan estrategiko guztiekin talka egiten dutela nabarmendu dute, eta gogoeta egiteko deia egin diete Jaurlaritzako arduradunei eta Legebiltzarreko gainontzeko alderdi politikoei.

Hala, Bartzelonan esaterako, "Europara begirako" araudia ga- ratzen ari direla gogoratu dute, "zuzeneko ikuskizunak sustatze- ko egungo egoerara moldatuta, urtean gutxienezko 40 kontzertu- rekin". "Eusko Jaurlaritzak Euro- para begira ari al da? Nora ari da begira?".



Igelaren Banda taldea, Gasteizko Dazz tabernan. DAZZ

Basozaintzaren egoera, "kinkan"

Basozainek salatu dute basoen kudeaketa egokia arriskuan dagoela: orain zortzi mendi-guarda ditu Arabak, baina bi plaza kenduko dituzte. Nekazaritza diputatuak dio 50 lagun inguru ari direla jardunean.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Arabako Basozain Profesionalen elkarteak ohartarazi du "desagertzeko arriskuan" dagoela basozainaren lana lurraldean. Zortzi guarda daude egun herrialde osoa zaintzeko: sei langile finkoak dira eta beste biak aldi baterakoak. Bada, elkarteak salatu duenez, Diputazioak aldi baterako kontratuak desagertu nahi ditu, plantilla murriztuz.

"1991. urtean hamabi basozain zeuden Araban, eta bi plaza gehiago sortzeko eskatzen zuten, lana behar bezala egin ahal izateko. Egoera konpondu ezean, apirile-

tik aurrera, orain dela 28 urteko basozainen erdia izango gara".

Basozainen elkarteak azaldu du egungo plantillarekin ezinezkoa dela basoen zaintza eta kudeaketa behar bezala egitea, lur eremu handiegia -50.000 hektarea inguru- egokitzen baitzaio basozain bakoitzari: "Zentzugabeko egoerak

BI PLAZA KENDUTA, ASTEBURUETAN LAGUN BAKARRA GUARDIAN EGONGO DELA DIOTE

gertatzen dira; Aramaioko basozainari, adibidez, Araiako zonaldea zaintzea tokatzen zaio". Gainera, bi plaza horiek galduz gero, asteburuetan pertsona bakar bat egongo da guardian herrialde osoan.

Arrantzari dagokionez, kudeaketa eta zaintza azpikontratatu egiten direla kritikatu dute basozainek. Arazoari egiturazko konponbidea eman behar zaiola nabarmendu du elkarteak, baina bitartean bi plaza horiek mantentzeko galdegin dute.

"50 lagun inguru"

Nekazaritza diputatu Eduardo Aginakok aitortu du langile gehiag izatea nahiko luketela, baina "Estatu mailako araudiak lanpostu gehiago sortzea" galarazten diela. Egungo egoera azaltzeko, funtzionarioak, azpikontratatu tako langileak zein arrantza eta ehizan ordainsaririk gabe aritzen diren "ohorezko guardiak" zenbatu ditu diputatuak. "Arabak 50 lagun baino gehiago ari dira orain araudia betetzen dela zirtatzeko lanenean".



Haien zeregina arriskuan daudela diote basozainek, Diputazioak bi plaza kendu nahi ditu eta. ARABAKO BASOZAINAK

ESANAK



NEREA GOTI
GARA EGUNKARIKO LANGILEA

"Hunkigarria da zenbat jende hurbildu zaigun animoak eman eta laguntza eskaintzera"



MANU BENDALA
BERTSOLARIA ETA IRAKASLEA

"Bertsotan hasi nintzen euskara beste modu batean ikasten jarraitzeko"



MIEL A. ELUSTONDO
IDAZLEA

"Ikastoletako lehen eragileak bertakoak izan ziren. Araba ez da zazpigarren alaba"

ZENBAKITAN

Milioi euroak

Zuiako Udalak 2019ko udal aurrekontua onartu du. EH Bilduren udal gobernuaren eta Zuiak Batzen Gaitu (ZBG) taldearen aldeko botoekin atera dira aurrera 3,3 milioi euroko kontuak; EAJ abstenitu egin da, eta PPK aurkako botoa eman du. Udal aurrekontuak zenbait partida berri ekarriko ditu. Horien artean, gizarte-laguntzak hobetzeko helburua duten bi nabarmendu dituzte. Batetik, etxeko laguntza-zerbitzuko langileek egin ezin ditzaketen zaintzak modu berezituagoan egiteko zerbitzua kontratatuko dute. Bestetik, menpeko pertsonak zaintzeko langileak kontratatu behar dituzten familiei laguntza emango diete.

3,3

800

Lanpostuak

Mercedes lantegian 2018ko azken sei hilekoan 800 lanpostu galdu direla salatu du UGT sindikatuak. Lanpostuen galera dieselaren krisiari egotzi diote sindikalistek: "Sortu den ziurgabetasun egoera dela eta, autoen eskaerak behera egin du". Batzar Nagusietan agerraldia egin dute UGTko arduradunek, eta bertan eskatu dute patronala, sindikatuak eta administrazioa bilduko dituen Espainia mailako mahai bat eratzea.

88

Minutuak

Adinekoen egoitzetan batez bestean eguneko 88 minutu eskaintzen zaizkio egoiliar bakoitzari, ELA sindikatuak egindako kalkuluaren arabera. Denbora ratio horiek igotzea eskatu dute, *Zaindu nazazu (gutxienez) bi orduz!* lelopeko kanpaina bat abiatuz. Adinekoen egoitzetako langileek egunero egin beharreko lan zama "izugarri handia dela" dio sindikatuak, eta egoerak zerbitzuaren kalitatean eragiten duela salatu dute.

Zumarraundiko bidea itxi egin du Zaldueondoko Udalak

Azkenean Zumarraundiko bidea itxi du Zaldueondoko Udalak. Gustavo Fernandez Villate alkateak azaldu duenez, "istripua gertatzeko arrisku bizia dago; eta gure gogoen kontra hartu behar izan dugu erabakia". Udalak argitu du behin behineko itxiera izango dela, arazoa konpontzeko eta neurriak hartzeko administrazioen arteko lan batzordea osatu arte.



Zumarraundiko bidearen egoera kaskarra aspaldi salatu dute. ZALDUONDOKO UDALA



Mañuetan podologoak jarriko dute.

Zerbitzu berriak finantzatu ditu Diputazioak herrietan

Arabako Diputazioak 29.000 euroko diru-laguntza zuzendu du herrietan zerbitzu berriak jartzeko. Hala, Mañuetako Udalak laguntza hori lokal publiko bat egokitzeke erabiliko du, podologia, masaje eta ile-apaindegi zerbitzuak emateko; eta Lantarongo Udalak, berriz, Fontechan, podologia zerbitzua emateko lokal publiko bat egokituko du.

Gasteizen euskara ikastaroak egiteko, 500.000 euro

Gasteizko Udalak 500.000 euroko aurrekontua bideratu du, Euskara Zerbitzuak antolaturik, gizarte etxeetan ematen diren euskara ikastaroak egiteko. Hiriko hainbat talderi zuzentzen zaie ekimena: eskola adinean dauden seme-alabak dituzten gurasoak, 55 urtetik gorako pertsonak, merkataritzako eta ostalaritzako langileak, atzeritarrek, udal langileak, eta abar.

Tarifa finkoa ezarriko da AP-1ean, eta hobariak AP-68an

Arabako Foru Aldundiak aurten ere diru-laguntza programa izango du AP-1 eta AP-68 autobideak sarri erabili ohi dituzten arabarrentzat, urtero ordaintzen duten bidesariaren kostua murrizteko. 2.000 onuradun baino gehiago izan zituen joan den urtean diru-laguntza programak, eta, guztira, 733.968 euro banatu zituen Foru Aldundiak.



Lizarralde soinu
TXALAPARTA S.L.

Audio Profesionala, Megafonia

www.lizarraldesoinua-txalaparta.eus
txala@txala.euskalnet.net
945 22 69 77
GASTEIZ

Erdi Aroko barazki-jaleak

Dulantziko San Martin eta Lañuko Las Gobas aztarnategietako gizakien hezurren eta hortzen azterketa egin dute EHUko ikertzaileek; besteak beste, atzeritar gutxi zeudela eta barazki-jaleak zirela ondorioztatu dute.



Irantzu Laura Guede, EHUko ikertzaile eta geologoa. EHU

ESTITXU UGARTE

Erdi Aroko biztanleriaren mugikortasuna mugatua zen; eta herritarrek batik bat zerealak, barazkiak eta lekaleak jaten zituzten. Hala jaso dute EHUko Mineralogia eta Petrologia saileko ikertzaileek Arabako bi aztarnategitan (Dulantziko San Martin eta Lañuko Las Gobas), Bizkaiko Momoitiko San Juanen eta Zaragozako Tausten egin duten ikerketa batean.

Irantzu Laura Guede Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile eta geologoa, hainbat arkeologorekin eta erakunderekin batera, VI. eta XI. mendeen arteko lau aztarnategietako gizakien hezurren eta hortzen ikerketa isotopikoa eta elementala egin

du. Erdi Aroko gizarte haien dinamika sozialak, dieta eta mugikortasuna aztertu ditu. Gizabanakoen mugikortasuna aztertzeko, haien hortzetako esmalte eta dentinaren eta hezurren konposizio isotopikoak konparatu dituzte, aztarnategi inguruko hainbat materialen konposizioekin.

Dietari dagokionez, bestalde, gizabanakoek jandako elikagaien arabera aldatzen diren isotopoen erlazioak ikertu

**DULANTZIKO HILERRIAN
MIGRAZIO HANDIEK
IZAN ZUTEN ERAGINA
ZALANTZAN JARRI
DUTE EMAITZEK**

dituzte. "Azken finean, jaten duguna gara. Jaten ditugun elikagaien konposizio isotopikoa gure hezurretara, hortzetara eta ehunetara pasatzen da, eta han geratzen da gordeta".

Dulantziko hatu germanikoak

Dulantziko San Martingo hilerriko kasuan, estrontzio isotopoak erabili dituzte Goi Erdi Aroko biztanleriaren mugikortasuna aztertzeko: "Estrontzio isotopo erradiogenikoen analisiaren bidez, bertakoak edo etorkinak diren bereizi daiteke". Ez da hori kontu makala. Izan ere, hilerri horretan aurkitutako gizakietako batzuk germaniar jatorria duten hatuak dituzte, besteak beste, armak, zeramikak eta apaingarri pertsonalak; eta Europa hegoaldeko arkeologiak germaniar migrazioek Erdi Aroan izan zuten paper nabarmenarekin lotu ohi ditu Dulantzikoa bezalako hilerriak.

Alta, emaitzek erakutsi dute Dulantziko biztanleria, batez ere, bertakoa zela, atzerriko pertsona batzuekin batera; eta migrazio handiek izan zuten eragina zalantzan jarri dute. Guederen ekipoaren arabera, sinadura isotopikoez zalantzan jartzen dute aurretiko paradigma etnikoa. "Izan ere, tokiko gizabanakoek dituzte nagusiki jatorri germanikoko hatuak". Guztira, San Martin de



Denera, lau aztarnategi ikertu dituzte; tartean, Lañuko Las Gobasekoa. PHOT.OK

Dulantzi aztarnategiko 33 gizabanakoren hezur eta hortzetan estrontzio isotopoak analizatu dituzte.

Kobazuloetatik, herrira

Las Gobas aztarnategi inguruan baserriak dituen kobazuloan egindako kokalekua da. Kobazulo artifizialen erabilera interpretazio ezberdinekin lotu izan dute. Historiografia tradizionalak kokaleku hauen zergatia Kristau aszetismoaren aldagai ezberdinen fenomeno gisa azaltzen du. Beste azalpen batek nekazarien komunitateak zirela dio; denborarekin, beste egonleku batzuetara mugitu zirela eta Erdi Aroko herrixkak sortu zituztela.

Kobazuloaren erabilera bizitoki bezala 300 urte baino

gehiago zabaldu zen; VI. eta IX. mendeen artean, hain zuzen. IX. mendearen amaieran pixkanaka utzi zituzten kobak, eta haraneko toki berri batera mugitu ziren (gaur egun, Lañu herria), baina liturgiak eta ehorzketa funtzioak XII. mendera arte iraun zuten.

EHUko Mineralogia eta Petrologia Saileko ikertzaileek Las Gobaseko 40 gizakiren hezurretan eta hortzetan estrontzio, karbono eta

LAS GOBASEKO GIZAKIEN MUGIMENDUA BAT DATOR LAÑU HERRIAREN SORRERAREKIN

nitrogeno isotopoak analizatu dituzte: "Estrontzio isotopoen balioak gizakien mugimendua X-XI. mendeetan eman zirela argitu du, Lañu herriaren sorrerarekin bat etorri zirela, eta nagusiki emakume eta umeak izan zirela mugitu zirenak".

Bestetik, antzinako Lañuko herritarren dietaren berri ere eman du ikerketak. Oinarritzko elikagaiak zerealak, nagusiki garia eta garagarra, eta lekaleak bezalako landareak ziren; hala ere, artatxikiaren kontsumoa ere atzeman dute, VII eta IX. mendeen artean. Las Gobas aztarnategiko biztanleen proteinaren jatorri nagusia txerria eta ardia edo ahuntza zirela ondorioztatu du azterketak. ■

ARTgia, hiru hartzek hartuta

Emakume artisten lana ikustarazten jarraitzen du Gasteizko sorgune aretoak; oraingoan, Cova Orgaz eskulturgile bizkaitarraren 'Custodes' erakusketa bisitatu ahalko da martxoaren 2ra bitartean.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Erakusketa berria dago Gasteizko ARTgia sorkuntza gunean; pasa den larunbatetik zirkulu polarretik iritsitako hiru hartz erraldoi ikus daitezke, Cova Orgaz artista eta eskulturgile bilbotarraren eskutik.

Animaliak sortzen ditu azkenaldian Orgazek, "errealismorik handiena lortu nahian". Horretarako kartoia eta birziklatutako objektuak erabiltzen ditu. Kartoi hori

zikinduta, zimurtuta, inprimatuta eta erabilia dago: "Hartzak egiterako orduan lagundu egiten du, nondik jo nahi duen eta non tolestuko den dio kartoia. Bion artean sortzen ditugu guztiz

HIRUGARREN ESKULTURA ARETOAN BERTAN ZUZENEAN SORTZEN ARI DA ARTISTA

informalak diren eskulturak", nabarmendu zuen artistak larunbateko inaugurazioan.

Bat-batean sortutakoak

Zirriborroak egin gabe eraikitzen ditu, bat-batean sortzen dituen pieza "oso adierazgarriak". Horrekin batera, azpimarratu zuen bere helburu nagusia ez dela kartoizko hartzak egitea, emaitza hori bada ere. "Nire asmo bakarra sortzeko, eraikitzeko eta errealitatea, bolumena, kopiatzeko gai izatea da, besterik ez", adierazi zuen. Oraingoan, negua aukeratu du, sasoi horretan hartzek duten bakardadea oinarri hartuta. "Izoztuta dauden basoetako zaindaria sinbolizatu nahi izan ditut", aipatu zuen.

Inaugurazioan formatu handiko bi hartz zeuden ikusgai, bat zutituta eta lau hankatan bestea; bi eskultura horiek egiteko 100 ordu inguru erabili izan ditu Orgazek. "Artea eta publikoaren arrakala" txikitzeko asmoz, hirugarren hartza galerian bertan egiten hasi zen larunbatean, horretarako propio antolatutako performace baten bidez. Hainbat egun beharko ditu, beste bien ondoan, etzanda dagoen animalia hori guztiz osatzeko. Erakusketa martxoaren 2ra arte egongo da zabalik Judimendi auzoko sorgune aretoan. ■



Cova Orgaz artista bilbotarra, bi hartzekin. ARTGIA

BERTSO LARI ALDIZKARIA

**EGIN ZAITEZ
HARPIDE!**
**URTAROKO ALE
BAT,
URTEKO
29 EURO**
www.bertsolari.eus



IDATZI



administrazioa@bertsolari.eus

'Green Book'

ZINEMA



ZIGOR ETXEBESTE

ZINEMAZALEA

Peter eta Bob Farrelly anaiei zinea umore eskatologikoz eta zikinez egina da, eta horren eredu dira orain arte elkarrekin zuzendu dituzten hamabi film luzeak: *Dumb & Dumber* (1994) eta *There's Something About Mary* (1998), besteak beste. Ez naiz Farrellytarren jarraitzaile sutsua eta bere lan berri baten aurrean zuhurkeriaz jokatu ohi dut.

Green Book filmaz zerbait entzun nuenean, gaiak erakarri ninduen: 60ko hamarkadaren hasieran Don Shirley piano-jole bikainak AEBko Hegoalde Sakonetik (Deep South) bira artistiko bat egiteko New Yorkeko gidari eta bizkarzain den Tony Lip kontratatuko du, beltzek hegoaldeko estatuetan zituzten ezintasunen jakitun. Bidaia horretan estatu desberdinetan *The Negro Motorist Green Book* gidak proposatzen dizkien beltzentzako leku apropos eta seguruetan hartuko dute ostatu.

Beste film bat segregazioaren inguruan? Peter Farrelly da filmaren egilea (oraingoa Bob gabe), eta honek filma aurreiritzik ikustea eraman ninduen. Alabaina, askotan gertatzen zaigun bezala, usteak erdi ustel. Komedia eskatologikotik aldendu daitekela frogatu du. Hollywoodeko Akademiak ere horrela ikusi du, bost izendapen jaso baititu aurtengo Oscar sarietarako (besteak beste film,



'GREEN BOOK'

aktore eta taldeko aktore onenari).

Afroamerikarren historia denbora askoan Hollywooden isildua izan ostean, ezagutzera ematen ari dira azken urteetan. Bitxikeri modura, aurtengo film onenaren saria jaso dezaketzen zortzi filmen artean, gai "beltza" dutenak hiru dira (beste biak *BlackKlansman* eta *Black Panther*).

Green Book filma road movie gisa ikus daiteke, baita adiskidetasun berezi baten

**VIGGO MORTENSENEK
ETA MAHERSHALA ALIK
BIKAINKI HARAGITZEN
DITUZTE PERTSONAIA
NAGUSIAK**

sorreraren istorio bezala. Protagonisten bidaia topikoz eta klizez beteta dago, eta nolabait lehenago ikusi dugun zerbait dela dirudi. Gertatzen denak ez ditu ikusleak harrituko (ez dut uste hori denik filmaren asmoa), baina zerk erakarri gaitzake orduan *Green Book* bezalako film batetik? Zalantzarik gabe, bi aktore protagonistek.

Viggo Mortensenek eta Mahershala Alik bikainki haragitzen dituzte Tony Lip eta Don Shirley. Mortensenek egin duen ahalegina aipatzekoa da, fisikoki asko gizendu baita eta batez ere lortu duen hitzegiteko eta ibiltzeko moduek italoamerikarraren tankera sinesgarria ematen diote. Eta Alik dotoretasunez osatu du bere pertsonaia, ez dakit pianoa jotzen dakien edo ez, baina bere behatzek zer egiten duten badakitela dirudi.

Bukatzeko, azken abisua: inork segregazioari buruzko kritika sakon eta gordin bat espero badu, buruhandi geldituko da, Peter Farrellyren lanak ez duelako distira askorik egiten. Dena den, atseginez ikus daitekeen zerbaitek ez du mintzen, eta *Green Book* filmak ez du minik ematen. ■

zinea

Beldurra

MUSIKA



IGOR MUÑOZ

MUSIKAZALEA

Hamabost urte besterik ez zituela, aluminio lantegi batean hasi zen lehendabiziko sosak irabazten Albert Pla gaztea. Horrelako leku grisean eta nagusi baten esanetara egotea ez zirudien zorionez beteriko etorkizuneranzko sarbiderik egokiena. Ikuspegi beldurgarri horri aurre egiteko Sabadellekoak argi zeukan bere gaitasun artistikoei etekina atera behar ziela. Hasieran, askatasuna idazteak emango ziola uste zuen, baina eskuetara gitarra zahar bat heltzerakoan, nonbaiten ezkutuan zuen bertutea atera zuen argitara: musika. Sokak igurtzitzea besterik ez zekiela, nahikoa zuen abesti hunkigarriak sortu eta entzulea berak asmatutako mundu berezietaraino garraiatzeko.

Beste askok egin ez bezala, pretentsio handirik gabe ekin zion kataluniarrak ibilbide musikalari, eta horregatik, akaso, heldu zitzaion arrakasta. Berak aitortzen du ez duela arestiko musikarien erreferentziarik, soilik barrenetako sentimenduei jaramon eginda, eta ez besterik, sortzen dituela abestiak. Horrela, gaur egun, normala da Albert Plaren izena Kataluniako beste artista ikonoklasta eta urratzaile klasikoen aldamenean kokatzea: Jaume Sisa, Quico Pi de la Serra, Pau Riba...



XAVIER MERCADÉ

Plaren ibilbide artistikoa urteekin garatzen joan zen, betiere artista garaikideekin sinbiosi harremanetan... bikotea duen Judit Farres artista izan daiteke euskarririk gertukoena, baina diskoak sinatu ditu, aldi berean, Joan Miquel Oliverrekin, Mallorcako Antonia Font taldekide ohiarekin eta baita Pascal Comelade musika tresna asko jotzen dituen frantses katalan preziatuarekin ere. Orain,

OSTEGUNEAN, HILAK 21, GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIKO AGERTOKIRA IGOKO DA ALBERT PLA


berriz, kataluniar giro musikalean topa daitekeen beste goi mailako artista batekin dabil elkarlanean; norekin eta Raül Refreerek, Silvia Perez Cruz, Rocío Marquez –*Miedo* izeneko proiektuan ahotsa jarri du baita ere– edota egunotan nonahi topatuko dugun Rosalia bezalako artisten diskoak modu itzelean apaindu dituen ekoizle musikalarekin. Biek elkarrekin sinatu dute *Miedo* diskoa eta antzezlan; hain zuzen ere, datorren ostegunean, hilaren 21ean, Gasteizko Principal antzokian aurkeztuko den ikuskizuna.

Miedo, oroimenera eta inkontzientera eginiko txangoa da; bertan 11 abesti berriren eta 3D irudien bidez gaztaroko mamu beldurgarrienekin nahiezko topaketa izango dugu. Pla aktore eta neskato itxurako hologramaz gain, bakardadea, abandonua, eritasuna edota heriotza bera izango dira protagonista oholatza gainean. Auskalo, ordea, ikusle bakoitzaren burmuinean gerta daitekeena.

Beraz, hemendik esperientzia honetara gerturatzeko gonbidapena luzatzea besterik ezin dugu egin. Biziaren errekek eramaten gaituen korrontetik ordu eta erdiz kontzienteki atera eta erreparatu artista xuxurlari bezain zorrotz honek mahai gainean jarriko dizkigun arazoei. ■

Otxateko portadaren zaindari

GURE BAZTERRAK



Uzkio

Kuadrilla: Trebiñu.

Udalerria: Trebiñu.

Biztanleak: 12 (2018ko INEren datuen arabera).

Bitxikeria: Aramendi barrutiaren inguruan, "diruaren soroan", frantsesek edo karlistek lurperatutako altxor bat dago,

ARGAZKIA: PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Bi portada erromaniko ditu Uzkioko Jasokundeko elizak; ikusgarriena eskuinean dago, baina ez da bertakoa, Otxatekoa baizik. Izan ere, 1964. urtean, Otxateko San Miguel elizatik harriz harri desmuntatu zuten eta traktore batean eramán. Polemika garraztaren ostean etorri zen lekualdaketa.

Hamarkada luzez abandonatuta egon eta gero, Arabako Foru Aldundiak eta Imiruri herriak Otxateko elizaren portada erreklamatu zuten, hondamenditik babesteko asmoz. Hilabete luzeko eztabaida etorri zen, baina ez ziren ados jartzen; hortaz, 1964. urtean Uzkioko apaizak auzia indarrez amaitu zuen: igeltserotza enpresa bat kontratatatu zuen eta harriz harri eramán zuten Otxateko portada Uzkiokora; bi aste epean portada hori Jasokunde elizan muntatu zuten.

Ordutik, Trebiñuko erromaniko berantiarrari buruz hitz egiten denean, erreferentzia nagusi den San Vicente joko baselizarekin batera, Uzkioko elizaren Otxateko portada aipatzen dute.

Herriko ondareaz gainera, Uzkioko bera eta kilometro gutxira dagoen Imiruri herriek Otxatetik

alde egin zuten bizilagunak ere hartu zituzten, XIX. mendean.

Otxateren hondamendia azaltzeko asmatutako kondaira beltzak, izurriteak eta madarikazioak aparte utzita, egoera ekonomiko askarra izan zen Trebiñuko hainbat herrin desagertzearen arrazoi nagusia, Otxate barne. Izan ere, Erdi Arotik herria zeharkatu zuen mandazainen bide nagusia Guardia eta Gasteiz lotzeko egindako Errege Bide berriak ordezkatu zuen; eta ordurarte Otxatetik ibili ziren mandazainak Uzkioko eta batik bat Imiruri aldera mugitu ziren. Hala, XX. mendearen hasieran Otxate erabat husten ari zen bitartean, Imirurik inoizko biztanle zenbateko handiena lortu zuen.

Egun, gainerako Trebiñuko herrietan gertatzen den bezala, Uzkioko eta Imiruriko bizilagun gehienek Gasteizen lan egiten dute, eta aste osoan herrietan bizi direnak dira gehienbat nekazaritzan aritzen direnak.



EMAN ZUEN ARABAKO TXOKO KUTUNAREN BERRI. erredakziora@alea.eus

Irakurleen txokoa

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozketak



Berri Txarrak ikusteko sarrera bikoitza

Harpidedunen eta zozketa bitartean harpidetzen zaretenen artean, Berri Txarrak taldeak, martxoaren 19an, Gasteizko Jimmy Jazzen eskainiko duen kontzerturako sarrera bikoitza zozketatuko dugu. Eman izena otsailaren 26a baino lehen.



Xabi
Igola



Manuel
Bendaña



Unai
Anda



Benet
Garsia



Peru
Abarriategi



Andre
Arriolabengoa

OTSAILAK 23
Larunbata 17:30

ARAMAIO,
Kultur etxean

Bertso saiorako sarrerak Aramaioko saioa

ALEAk otsailaren 23an Aramaion izango den Arabako Bertsolari Txapelketako hirugarren final laurdena ikusteko bi sarrera bikoitz zozketatuko ditu. Hilaren 20ra arte eman daiteke izena.



ALEA produktu sorta Haurrentzako materiala

Udaberrira begira armairua berritu nahi? Haurrentzako ALEAren kamiseta, bisera eta poltsa bana irabazteko, eman izena otsailaren 20a baino lehen. Hilaren 22ko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Otsailaren 15etik 21era

Euskararen agenda

MUSIKA

LEGUTIO Hutsun

Jel Jazz taldearekin batera.

Ostirala 15, 19:30ean, kultur etxean.

GASTEIZ Jon Gurrutxaga eta Urbil Artola

Asteartea 19, 20:30ean, Parral tabernan.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Hamaika amaren seme-(alaba)'

Eusko Ikaskuntza eta Doke antzerki taldearen eskutik. Vene Herrerok zuzenduta.

Larunbata 16, 19:30ean, Felix Petite antzokian.

GASTEIZ 'Harriek kontatu didatena'

Ane Gebara kontalariaren eskutik.

Arabako herrietan batutako istorioak.

Astelehena 18, 19:00etan, Hegoalde gizarte etxean.

HAURRAK

AMURRIO 'Asterix eta edabe magikoaren sekretua' pelikula

Asterix eta Obelixen abenturak.

Igandea 17, 17:30ean, Amurrio antzokian.

LAUDIO 'Ploey' pelikula

Txori gazte baten istorioa kontatzen du Arni Asgerissonen pelikulak.

Igandea 17, 17:30ean, Laudioalde ikastetxean.



TARTEAN TEATROA

GASTEIZ 'Ghero' antzerkia

Mikel Martinez, Patxo Telleria, Olatz Ganboa, Iñaki Maruri eta Ane Pikazarekin.

Asteazkena 20, 20:30ean, Principal antzokian.

BERTSOLARITZA

ONDATEGI Bertsolari Txapelketa

Bigarren final laurdena. Aitor Ugarte, Irati Anda, Unai Bengoetxea, Serapio Lopez, Oihane Perea eta Aroa Arrizubietarekin.

Larunbata 16, 17:30ean, kultur etxean.

GASTEIZ Bertsokatu txapelketa

Paula Amilburu, Peru Abarrategi, Gorka Pagonabarraga eta Iker Uriartekin.

Asteazkena 20, 20:00etan, Aranban.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Namibiako basamortua'

Koldo Zubizarreta eta Ainhoa Perez de Nancloresen hitzaldia, bizikletaz egindako bidaiaren inguruan.

Asteartea 19, 19:00etan, Ariznabarra gizarte etxean.

GASTEIZ Hassaniera

Hitz Adina Mintzo hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloaren barruan. Garazi Hach Embarek eta Nayat Aduh-ekin.

Asteazkena 20, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxean.

BESTELAKOAK

GASTEIZ GEUrekin mendira

Ocio, Zabalate eta Bergantzura egingo dute mendi ibilaldia. Bost orduko txangoa izango da.

Igandea 17, 08:30ean, Mendizorrotzako aparkalekutik abiatuta.

GASTEIZ 'Emazteen fabore' errezitaldia

Gerardo Markuleta eta Nika Bitchiashviliarekin. Poesia errezitaldi musikatua.

Osteguna 21, 19:00etan, Arana gizarte etxean.



JUAN TOMAS ALCALDE

GASTEIZ 'Saguzarrak, gauaren aliatuak'

Saguzarrak ezagutarazi eta mito faltsuak uxatzeko erakusketa.
Martxoaren 3ra arte, Ataria gunean.

Beste batzuk

MUSIKA

GASTEIZ The Dustaphonics

Larunbata 16, 22:00etan, Hell Dorado aretoan.

GASTEIZ Blanchard

Astearte Musikalak zikloaren barruan.
Asteartea 19, 20:00etan, Vital Fundazioa aretoan.

GASTEIZ Albert Pla

'Miedo' lana aurkeztuko du.
Osteguna 21, 20:30ean, Principalen.

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Playoff'

La Joven Compañía taldearekin.
Astelehena 18, 20:30ean, Principal antzokian.

BESTELAKOAK

GASTEIZ 'Une place dans l'avion' eta 'Dem Dem!' dokumentalak

Afrikaldia zikloaren barruan.
Ostirala 15, 19:00etan, Luis de Ajuria aretoan.

KANPEZU Zine-foruma

'El médico africano' pelikula izango dute solasgai.
Igandea 17, 17:30ean, kultur etxean.

GASTEIZ 'Tettraversos: maneras de amar' errezitaldia

Mary Zurbanoren eskutik, poesia errezitaldia.
Asteazkena 20, 19:00etan, Zabalganako gizarte etxean.

GASTEIZ 'Laboratorio del gusto' solasaldia

Slow Food elkartearen eskutik. Topaketa ekoizle, sukaldari eta elikadura osasungarriaren arloko adituekin.
Asteazkena 20, 19:00etan, Pilarreko gizarte etxean.

GASTEIZ 'Un lac' erakusketa

Ivan Urarte argazkilariaren erakusketa. Gaztaroari buruzko hausnarketa egiten du.
Martxoaren 24ra arte, Amerika erakusketa aretoan.

LAGUNDU HIRIA GARBI MANTENTZEN



Zabor poltsak edukiontzi eta buzoietan utzi



681 102 020

